



Batikano'ko izparak.

Parantze'ko Katoliko Ekintza-ordelariak, euren Buru Verdier kardenala dabela, Aita Santua ikertu dabe. Katoliko-Ekintza onen azpian beogetamar bazkunmotatik gora, lan egiten dabe, gaurko gizarteko bear izan gustietarako bazkunak ederto eralduta daukiez-ta. Ordeleri lez Doipuruagana 250 bazkun-zuzendari eldu dira. Verdier kardenalak, gezna eta agur bat zuzendu dautso, katolikotar bazkunetako zuzendari gustiak lenengo aldiz batera bere onetan biltzen dirala esanaz. Aita Santuak pantzeraz erantzun eutsen, oinbeste eratako bazkunak eta ain mardulak daukiezelako poz andia agertuaz. Batez be irakaskintza-bazkuna txalotu eban toki gustietan baña berariz Parantze'n, gaur lenengo tokian egon bear dabela esanaz. Gero ta geyo ta obeto lan egiteko esan eutsen. Gero Dumont'en *Credoa* abestu eban, eta Verdier kardenala'k pantzetafen oparia eskiñi eutsen, eta Aita Santuak bafiro itz batsuk zuzendu eutsezan esanaz, orduantxe ta Lourdes'en entzun eban, *Credo* ori Prantze gustiak abestu dayenean egiz esan al izango dala: *Fides tua te salvam fecit*. Gero Castelnau gudalburuak eta emazteak ikertu eban.

—Buruñurdun edo kaputxinoak, euren zuzendariak aututeko Efoma'n batzara izan dabe; alde gustietako 106 ordelari bildu dira, eta Gopatzako burutzat Vijilio Valstagna aba, Aita Santua'ren izlari izan dana, autu dabe. Eta gero gustiak Aita Santua ikeretzen yoan ziran. Ez zan ikuskisun makala izango 106 bizardun batera ikustea. Aita Santua'k, gustiei eskua mun-egiteko emon ondoren, itzalditxo bat egin eutsen. Gero bakarean Barcelona'ko «provincial» Castello abak eta Espluges abak ikertu eban. Txukunkiro irafitako salterio bat eta katalanerazko idazti batsuk, «*Criterion*» aldizkingiaren «*Estudis Franciscanis*» en zenbakiak eta «*Volumina Franciscalia*» idazti bi eskiñi eutsezan.

Ila onen 24'n sei mila gudari «granaderuak» deritxoenak Aita Santua ikertu dabe. Eurokaz eldu ziran lau kapileu eta gudan ibili ziranen ama batsuk. Eurei yagokien itzaldi polita egin eutsen, Kristo Bakaldunaren gudari izateko eta ludi ta aragia azpiratuta, bakearen gudari izateko afokeriz yokatu bear dabela esan eutsen.

—Aita Santua'k, lanbakoentzat zabaldu eban arpiderako, egunokaz Efoma'n izan diran pantzeta bideztiak, Verdier kardenalaren bidez, 102.072 lira eskini dautsez.

Eskintza benetan bikaña da, pantzetafan biotz on eta esku zabal balen ezaugafi. Ederto dago ikasbidetzat be, enparau katolikotafontzat. Onegaz arpide ori ia miloi bat lirara laster elduko da, ori *L' Osservatore Romano*'k bakafik.

Polonia'tar Katoliko-Gastedia.

Poloni'tar katoliko-gastediak Poznan'en XV'n batzar orokofa ospatu dau. Bazkun ordelarietan 1.500 bildu ziran. Jarosz kanoniguak, gastedi-batzak amabost urte onetan egin dituan lanen bari emon eban itzaldiak, entzuleak pozez bete zituan. Gnesmo ta Poznan'go goterkietan bakafik 620 bazkun 24.000 baxkidegaz dagoz.

Lotz'eko goterkian iru ilabetean 149 bazkun eraldu dituez. Lublin'en goterkiko emakume bazkunak euren batzara euki dabe, Katoliko-Ekintzan zelari egin adiraltzeko. Poznan'en izan daben batzar onetan Michalski idazkari orokofak, auferantzera-ko dituan asmoen bari emon eban. Batzar onetan lendakari Hlonk Gotzain buru agurgafia izan da, eta azkenean aufera yafaitzeko dei egiñaz itzaldi sutua egin eutsen.

Mexiko'ko yasarpn negargafia.

Lateri batsuetan gero ta gogorago yasarpn lotsagafiak yafaitzen dau. Latefi gustietan masoi eta komunistak zabalkunde gogora egiten diardue, eta euren alegin gustiak umeak gaiztotu ta abadeak ondatzera zuzentzen ditue. Gaiztokitik urten leiken asmorik baltzenaz, alegin gustiak egiten diardue, ume gustiak lateri-ikastoletara eroateko eta neska-mutikoak nastean dirala, komunisten aldeko itzaldiak, zifnestean aurkako biraoak eta emen aitatu be ezin geinkezan gaiztakeriak irakasten dautsiez, *L' Osservatore Romano*'k diñonez. Batez be ori Veracruz'eko latefian gertatzen da. Baña beste toki batsuetan ez dabiz askoz obeto ba'dirudi yasarpn onetan boltxebitafai txapela irabazi gura dautsiela. Legez bigafen malako ikastolak katolikoak idigi leikez baña, ikastaroa amaitzean asko ordainduta, azterketa gogofa latefi ikastoletan igaro eragiten dautse.

Abadeen kaltez, ostera, izparingi bidez batez be, gogor zabalkunde egiten dabe. Legeak eurak be, latefi batsuetan abadeak oso ufutu ditue. Chilmabrua latefikian 45 mila biztanleko abade bat bakafak lan egin leike, eta bizi ezindako legeak ipinteko asmatzen diardue. Lege oso kaltegarri bat emoteko dabiliz. Aita Santua'ri men-egiten dautsen abadea, mexikotafa izan aren, atzefitar etsiko dabela. Onen ondorena yakifia izango litzake, atzefitar abaderik aintzat artzen ez dabelako, ango katolikotafak ain barik lez geldituko litzakez. Ez aldabe ontzat emongo, baña alan ba' litz be, ekaitzari arpegi emoteko mexikotar katolikoak azkenengoak ez dirala izango uste dogu.

Ipar-Amerika-ko Latefi Batuetako katolikotafak.

«The Official Catholic Directory», 1931'n urterako atara dabenak diñonez Latefi Batuetan dagozan katolikoak onexek

dira: 1931'n urtearen azkenean, 20.236.391 katoliko ziran. Ogei urte oneitan 5.220.822 geyagotu dira. 1931'n biurtu diranak 40.269 dira, 1930'n baño 741 geyago. 17 Gongotzain (artzobispo) eta 105 Gotzain dagoz, lenengoetatik lau, kardenal dira. Abadetan bariz, 28.297 dira, 1930'n baño, 433 geyago. Abadeen ardurapean yafaituan dagozan elizak 12.484, eta mixiñoetako ta gustira 18.152 eleiza dagoz. Abade ikastetxeak 172, aurreko urtean baño 27 geyago. Pafoki-ikastolak 127 geyagotu dira, gustiz 7.514. Erietxe-katolikotafak 645, iru lengo urtean egiñak.

Kanada'ko Izparak.

Ipar - Amerika'ko Kanada'tar begikoak be *Le Canada Ecclesiastique*, aurtengo urteari dagokiona argitaldu dabe. Ara zenbaki yakingafi batsuk: Kanada'k gustiz 10.374.196 biztanle ditu, eta oneitatik 4.028.314 katolikotafak. Igesko urtearen asieratik 131.143 geyagotu dira. Abade edo yaupariak 5.045 dira eta laguntzen dautsen lekaideak 1.971, ogetamantzortzi gopatzetakoak. Gongotzaintzak 11 dira, goterkiak 26; Vicariatus Ap. 7, eta *nulius* deritxon Abadego bat. «Rutheno gurtzakerakoak» 300.000 dira eta euren goterki berezia egiten dabe.

Eleiza ta eleizatxotan 4.134 daukez; Katolikotar Ikastetxe Nagusiak 5; bigafen malako ikastetxe ta abadegintzarakoak 57; Seminario Nagusiak 12; gasterientzat 55; erietxe (hospitelak) 380; gizonezkoak 56 Goputz eta Anaiditan, eta lekaimeak 36.000, 96 gopatzetan bananduta.

Kanada'tar mixiño lanetan ez dira makalak, bertako 300 mixiolarik lan egiten dabe Apirka'n India, Txina, ta Japon'en. An katolikotafak aufera doaz.

Izpar txorta.

Buffalo, Ipar Amerika'n Orila'ren 19, 20 ta 21'n Later Batza'ko izparingi katolikotafan Bazkunak urteroko batzara egin dau. Izparingien eragipena geyagotzeko bide gustiak adiraldu dituez. Izlarien artean, Pittsburg eta Buffalo'ko Gotzainak izan dira.

—Txikago'ko Elisabet deunaren eleizan 129 baltz egunokaz katoliko egin dira. Eckert abak. S. V. D. biurtu ditu, eta oneikaz amaika urte oneitan katoliko egin dituan protestante baltzak 1.782'ra eltzen dira.

—Yapon'go aldundi edo Dieta'n, orain arte inoz be katolikotar aldunik ez da izan, eta ointxe pozez dagoz, lenengoa aukeratu dabelako. M. Oshima Torakixi da katolikotar aldun au, Hako-date'ko aldun ointsu aukeratu dabe.

—Paraguay'en Villarica, Concepcion eta Chacorako, gotzain bariak egin dituez, eta ointxe gandik goterki berezi izango dira. Orixe dala-ta, Paraguay'ko lendakariak efiaren izenean eskefak emon eta poza Aita Santua'ri agertu dautso, baita eskefak, Silberster deunaren Kurutz andiaz saritu dabelako.

M'tar G.

Euskal-erriko izparrak

Ispaster

Naste boraste.

Negu gogofa izan dala ta, sakela luzatu bifean izango dirala babea erosteko, estu arkitzen ziran gure basefitafak, baña Ofilak eten bako euri negarakaz, arto ereitea atzeratu afen, estutasun ortatik atera ditu, gura daben beste bedar emanaz.

Madari, kerixa, sagar ta igali-zugaitz guztiak, loraz guztiz beterik agertu ziranean, amaikatxu bafe goxo egin zuten gure basefitafak, idi probatan, aurtengo neguan sakelari egindako zimufak, kenduko ziozkatelakuan, igaliaren bidez artuko zuten txindi edo diruakaz, bañan ametz ofek gitxi iraun dau, bada *murutar-en putzak*, egun bitan izan genduan egoi-aizeak lorak efe, ta aufenetik itxaro eben erdia izaten badabe, pozik egon deikete.

Zaranduko auzotegian oker aundia izan dabe, bei artean sortu dan gaxo zital bat dala-ta, bada goizetik gabera bost edo sei abere gori galdu yakuez.

Txadon nagusian, eleizkizun edefak izan ditugu Ofilean. Ume abeslari ta Miren'en alabak samak garbiak dauzkatela erakutzi digute, egunero ain polito abestu dituen abesti goxoakin, ta Jesusen Biotzaren ila be ondo baño obeto ospatuteko gertuta dagoz.

OTOYOPE

Eunak eta soñeko egiñak Zeara'tar Erupin

Tenderia 15

Bilbao

Mañari.

Bederatziurera.

Barikuan asi zan Josu'ren Bijotz gozuaren bederatziurera. Iluntzeetan egiten da; ta abesti edefakaz eta abar andikiro ospatzen da. Aintza Beraril

Juan-Etorijak.

Gazteiz'era juan zan Untzalu'tar Todor; Salamanka'tik etofi zan, Bafueta'tar Joseba Mirena mutil ikaslia; Murgia'ko ikastetxetik, Astelafa'tar Aureli mutikua; Gazteiz'en batxilertzako azterketak ondo eginda, larunbatian etxeratu zan, Ortuoste'tar Jon mutiltxua, Zorijonak.

Osatuta.

Bizkafa'tar Bingene, aspalditxuan gexorik egon dan «Lafea»ko etxandera zafa, igandian mezara etofi zan. Poztuten gara.

Lugiñak.

Ofilak «portaziño» tzafa egin dautsoela-ta, lafi dabilz gixagoxuak. Batzuk, oindiño, arto garauntxo bat beerein barik aurkitzen dira ta. Tamalgafija!

Esakun zafak diñoan lez, deun Jon eguna barikuz dalako ete da...? Kortako bei zurija, inortxok be ez begi ixan eforarako... Goikua efukituko al-da.

Baltzola'ko jaya.

Ilonen amabijan ixango dala diñue. Gertakixunak egiten, baten-batzuk zintzo diardue. Jai edefa ta begikua ixango dogu. Sorkunde Garbi-garbi-jaren aintzaz, sermolari entzutetsu batek berbaldi edefa egingo ei-dau. Geure Ama aintzalduten juateko, danok gagoz pozik.

Lana.

Garamendi anayen eta «Angufeta» ko afobijetan (kanteretan) lana polito dagola diñue. Biargiñak beintzat, egunoro lanian pozik diardue, Luzaro jafaituko al-dabe olantxe. Afija ogi biurtzen dan artian, Mañari ondo ibiliko da-ta.

Kerixak.

Eguraldi otzak ixan diralako, igal gozo-au, aurtun, atzera samar jatoriku; ondiño, garaunak, gofizkatzen be eztira azi ta.

Beti lez, ekandua ez galtziefen edo, emeko jentia, kerixa gitxi dago-la ta abar esaten, iñun diran koitakaz asi dira. Bafiro be «Baltzuntze»ko aguriak efazoe andijaz esango dau «Bein-be aze ezin diran negar-mosto afayuak!

MAÑARIKO

Joseba Deuna'ren Idaztitegin

(Libreria SAN JOSÉ)

Bilbao'n danik orniduenaz uz-kurtz'izazko saloskai gauzetan. **BILBAO'n Loteria 2**

Ea.

Ezkon-deyak.

Igandian bota diraz Gregorio Ugaldea eta Fraziska Aranbafi'n lenengo ezkon-deyak. «Zubialde» efi basefiko etxe txukunian urte askotako zoriona opa deutzuat.

Eleizkixunak.

Oso edefak izan doguz Joskorputz egunekuak eta ufengo igandekuak. Egun bi ofetan bertoko neskatiak abestu eban jaupea oso ederto. Zorionak eta jafaitu; eta ainbeste neskatiak euzkeltzale zagozien ezker «Ekin»era be nozik bein izparitxu batzuk bialdu, ba ikusten dozue nik geruago ta molda gitxiago daukadala; ez dozue ikusten gure-albo efi Natxitu'tik zelako izpar-txorta maniñak bialduten dabezan?... Igitu zaiteze-ba, gaztiok, geure elez abefi-alde zerbait egiteko, ba aberijari lagun egitia zelari edo alan (bakotzak aldaun eran) Jaunaren guria egitia da-ta.

Gotzontxu bat donokira.

Emen guztiz begiko diran senar-emazte Dionisio eta Eustakia'ri Jaunak beraganatu dautse euren alaba bakar Itziar'txu. Atsekabian lagun nozue, baña siñismen-eraz begiratu bai? eta Jaunak onestuko zabez.

PRAISKU'REN LOBIA

Eleiz-jantzi ta urregintza

A. Rui-Wamba

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Ilueva, 10 Ufutzikiña 14.238

BILBAO

Erigoiti.

Gorpuzti.

Aurreko egunean loraz eta bitxiz yantzi euskuen elezea, nezkatiak on batzuk. Goxean Jaunartze ugaria izan zan. Beluko mezea argi guztiek biztute ta Gure Jauna agiriaren zala izan zaneta bertako mutil batzuk abestu euskuen meza polit bat eta oso ederto Paulinok organuegaz lagundute. Gero egin zan, elizpetik, ibil-deuna Pange Lingua abestuten dala yoanik gizon azko ta Jesusen zeladoreak eta Gazte Eukarizti Zaleak euren ikufiñ edo bandera politagaz eta argi biztuekaz. Bardin egin zan ufengo domekan.

Ezkon deyak.

Laster ezkontzeko dire Juan Elgezabal, Olabafikoa, eta Lazaro Zelaya, Mañarietako, Muxikeko nezkatiak banagaz. Artu beyez gure zorionak.